



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza  
Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Administración y Servicios  
Dirección de Gestión de Personal

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO LANGILERIAREN  
KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN 2013ko URRIAREN 7ko EBAZPENA,  
ERLIJIOKO LAN-LEGEPEKO PERTSONAL IRAKASLEARI 4. ETA 5. SEIURTEKOA  
ORDAINTZEKO ESKUBIDEA EZAGUTZEN DIONA.**

**ZUZENBIDEKO OINARRIA:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila gaur egun) menpeko Erljioko lan-legepeko pertsonalaren indarreko hitzarmen kolektiboak 33. artikuluan hau xedatzen du:

*"1. Hezkuntza Sailaren menpeko irakaskuntza-sektore guztietako pertsonalaren ordainsari berberak- kontzeptu guztietan- jasoko ditu hitzarmen kolektibo horrek eragiten dion pertsonalak "*

Gatazka kolektiboari buruzko 20/2011 lan-autoetan Saileko lan-legepeko irakaskuntza-pertsonalari- erreferentziako kolektiboa denari- dagokionez, Auzitegi Goreneko Lan Arloko Salak, 2012ko azaroaren 13ko epaian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak 2011ko ekainaren 28an emandako sententzia berretsiz, lan-legepeko pertsonal irakasleak funtzionario irakasleek bezala kobratuko dituela seiurtekoak adierazten du. Horrela esaten du auzitegiak:

*" Ordainsariak jasotzeko hitzarmenean finkatutako sistema bat interpretatu eta aplikatzeko orduan, pertsonal funtzionarioarentzat ezarritako sistemara jo behar da. Horiek horrela, "funtzionario irakasle publikoen kategorietakoek jasoko dituzten ordainsari berberak kontzeptu guztietan jasotzea " esaerak hau esan nahi du: lan-legepeko irakasleek funtzionario irakasleek bezala kobratuko dute osagarri espezifikokoaren dedikazio bereziko osagaia "*

Hitzarmen honek- erregistratu eta argitara ematen den unean Bigarren Hezkuntzako Erljioko irakasleei aplikatu ahal zaienak- 33. artikuluan xedatzen duenez, lan-legepeko kolektibo horrek funtzionario irakasleek bezala du seiurtekoak jasotzeko eskubidea.

Horregatik, ondorio hau atera behar dugu: egiaztatzen dituen seiurtekoen arabera ordainsaria jasotzeko eskubidea du Bigarren Hezkuntzako Erljioko lan-legepeko pertsonal irakasleak, indarreko hitzarmenak pertsonal funtzionarioaren eremuan ezartzen duen erregulazioaren arabera.

**ZUZENBIDEKO OINARRIA:** Bigarren Hezkuntzako Erljioko lan-legepeko pertsonal irakasleari dagokionez, 40/11 gatazka kolektiboari buruzko eskaera aurkeztu zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Arloko Salari, lan-legepeko pertsonal irakasleak bezala 4. edota 5. seiurtekoa ordaintzea eskatzeko.

2012ko martxoaren 6an egindako epaiketaren aktan jasota agertzen denez, aldeek batera hartzen dute prozedura hau bertan behera uzteko eta Auzitegi Goreneko Lan Arloko Salak 20/2011 lan-autoetan emango duen sententziari men egiteko erabakia.

**ZUZENBIDEKO OINARRIA:** Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioak, uztailaren 6ko 185/2010 dekretuaren bidez onartuak, 71. artikulua hiru garren paragrafoetik zazpigarrenera hau adierazten du, "osagarri espezifikokoaren dedikazio bereziko osagaia " tituluaren azpian:

*" Negoziazioa izan eta irakaskuntza-karrera profesionalari lotutako ordainsarien sistema berria ezarri arte, 213/1992 dekretuaren bidez onartutako gradu-sistemaren eta berri garatzen duen 1994ko uztailaren 22ko aginduaren arabera inplementatuko ditu dedikazio bereziko osagaiari lotutako zenbateko ekonomikoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, gradu horiek hobetu ahal izateko eskubidea izan arren orain arte, seiurtekoak "*



kapitalizatzeko garatu den sistemaren ondorioz, eskubide gauzatu ezin izan duen pertsonalarentzat.

Gradutik eta kapitalizatzeko sistemaren ondorioz gaur egun finkatuta dauden zenbatekoetatik (3.673,61 euro) abiatuz gauzatuko da inplementazioa eta gaur egun, zerbitzu-urteak egiaztatzeagatik, beste gradu bat hobetu ahal duten karrerako funtzionarioentzat bakarrik izango da. Inplementazio ekonomikoak gradu desberdinen balore gisa finkatu ziren zenbateko gaurkotuak hartuko ditu erreferentziatzat.

Horiek horrela, aldi horretan inplementatu beharreko zenbatekoak hauek dira:

Gradua inplementatu beharreko zenbatekoa

4.a 669,57 euro

5.a 554,82 euro (+669,57= 1.224,39 euro)

2010. eta 2011. urteetan inplementazio ekonomiko horren ondoriozko zenbatekoak ordainduko zaizkie jasotzeko baldintzak egiaztatzen dituzten karrerako funtzionarioei. Horiek horrela, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera urteko 330,01 euro, gutxienez, ordainduko zaizkie 4. graduako zerbitzu-urteak egiaztatzen dituzten karrerako funtzionarioei; eta urteko 603,48 euro 5. graduako zerbitzu-urteak egiaztatzen dituzten karrerako funtzionarioei. Halaber, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera 4. eta 5. gradua guztiz ordainduko zaizkie jasotzeko zerbitzu-urte guztiak egiaztatzen dituzten karrerako funtzionario guztiei.

Zerbitzuak 6 urte eman izana egiaztatzen duen pertsonal orori ordainduko zaio dedikazio bereziko osagaiaren lehen gradua".

4. edota 5. graduako urteko zenbatekoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidego desberdinetako lanpostu-zerrendak onartzen dituzten dekretuen lehen xedapen gehigarrian zehaztutako balioa hartu behar da kontuan.

**ZUZENBIDEKO OINARRIA:** Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioak, uztailaren 6ko 185/2010 dekretuaren bidez onartuak, 3. artikulua 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako atzera eragina dute akordio horren ondoriozko eragin ekonomikoek.

Hots, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako atzera eraginarekin ordainduko zaizkio 4. edota 5. seiurtekoaren ondorio ekonomikoak Bigarren Hezkuntzako Erljioko lan-legepeko pertsonal irakasleari.

**ZUZENBIDEKO OINARRIA:** 2013ko ekainaren 14an hartu zen Haur eta Lehen Hezkuntzako Erljioko pertsonala "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko Erljioko pertsonalaren" hitzarmen kolektibora sartzeko akordioa (2004ko otsailaren 13ko EHAA); akordio hori Euskadiko Hitzarmen Kolektiboan Erregistroan sartu da, Lan eta Gizarte Politika Saileko Lan zuzendariaren 2013ko abuztuaren 8ko ebazpenaren bidez.

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei ordainsariei begira hezkuntza-maila bakoitzaren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza- ezaugarri bereziak kontuan hartuta, Haur eta Lehen Hezkuntzako Erljioko irakasleen ordainsariei dagokienez, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-sektore publikoko bitarteko pertsonalaren ordainsariak jasoko dituztela adierazten da.

Zuzendaritza honek bitarteko funtzionario irakasleei 4. edota 5. seiurtekoa ordaintzen die, kolektibo honek ordainsariak funtzionario irakasleek bezala jasotzeko eskubidea duela baiesten duten sententzien arabera.

**ZUZENBIDEKO OINARRIA:** Haur eta Lehen Hezkuntzako Erljioko lan-legepeko pertsonalari ekainaren 28ko 133/2011 dekretuaren bidez (2011ko ekainaren 30eko EHAA) transferitu zitzaion Euskal Autonomia Erkidegora, 2011ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin. Haur eta Lehen Hezkuntzako Erljioko lan-legepeko pertsonal irakasleei 4. edota 5. seiurtekoa ordaintzeak 2011ko uztailaren 1etik aurrerako atzera eragina du.



**ZUZENBIDEKO OINARRIA:** apirilaren 9ko 193/2013 dekretuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen dituenak, 10.2d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak du Erljioko lan-legepeko pertsonal irakaslearen nomina kudeatu eta kontrolatzearen ardura.

Horregatik guztiarengatik, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz,

### EBAZTEN DUT

**Lehena.** - Erljioko lan-legepeko pertsonal irakasleari 4. edota seiurtekoen zenbatekoak ordaintzea, ondorio ekonomiko hauekin:

- Bigarren Hezkuntzako Erljioko lan-legepeko irakasleentzat: 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerakoak.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako Erljioko lan-legepeko irakasleentzat: 2011ko uztailaren 1etik aurrerakoak.

**Bigarrena.**- Ebazpen hau Sailaren web orrian argitara eman eta sindikatuetakako ordezkariiei jakinaraztea.

### ERREKURTSOAK

Lan-bidera jo aurretik, erreklamazioa jarri ahal izango da ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legearen 120. artikulua eta hurrengoak).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 7a

  
  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
**Konrado Mugertza**  
LANGILEAK KUDEATZEKO ARLOAREN ZUZENDARI  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Faint, illegible text at the top of the page, possibly a header or title.

Faint, illegible text in the upper middle section of the page.

Faint, illegible text in the middle section of the page.

Faint, illegible text in the lower middle section of the page.

Faint, illegible text in the lower section of the page.

Faint, illegible text at the bottom of the page.

Faint, illegible text at the bottom of the page.

Faint, illegible text at the bottom of the page.

Faint, illegible text at the bottom of the page.

Faint, illegible text at the bottom of the page.

Faint, illegible text at the bottom of the page.

Faint, illegible text at the bottom of the page.